

ENPLEGUA SUSTATZEKO PROGRAMA FABRIKAZIO MEKANIKO ARLOAN

PROIEKTUAREN HELBURUA

Eibarko langabeen edo lan prekarioa dutenen laneratzeko gaitasuna hobetzea:

- Planoen interpretazioa eta kalibrazioa.
- Formakuntza: (MF0091) Txirbil-harroketa bidezko mekanizazioa.
- Formakuntza: Eskorga jasotzaileak gidatzea.
- Formakuntza: Gaitasun pertsonalak.
- Praktiak enpresetan.
- Laneratze-prozesuan laguntza.

BETE BEHARREKO BALDINTZAK

- Eibarren errolatua egotea.
- Langabezia-egoeran egotea edo lan prekarioa* edukitzea eta Lanbide-n izena emanda egotea.
- Gaztelaniaren ahozko nahiz idatzizko ulermen-maila egokia izatea.
- Positiboki baloratuko da Fabrikazio Mekanikoan esperientzia profesionala edota ezagutzak izatea.

** Honako hauek hartzen dira lan prekariotzat: iraupen jakineko kontratuak, urtebetetik beherako iraupena dutenak, lanaldi partzialeko kontratuak eta 1.000 eurotik beherako hileko ordainsari garbia duten kontratuak, aparteko ordainsarien hainbanaketa barne.*

ESKAERA EGITEKO EPEA:

2024ko otsailaren 5etik 23ra arte (biak barne).

TRAMITATZEKO BIDEAK:

- **Presentziala:** PEGORA, Herritarren Zerbitzurako Bulegoa (Untzaga plaza 1, beheko solairua).
- **Elektronikoa:** Udalaren www.eibar.eus webgunearen bidez. Izapidea elektronikoki egiteko, ziurtagiri digital bat eduki behar da (B@K-Q, NAN elektronikoa, IZENPE txartela, etab.)

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- Eskatzailearen NANA edo horren balio bereko beste dokumenturen bat.
- LANBIDEk egindako txostena, langabe gisa inskribatuta egondako aldiei buruzkoa.
- Lan-bizitza eguneratua.
- Curriculum vitae eguneratua.
- Legezko ordezkapenaren kasuan, legezko ordezkariaren NANA edo balio bereko dokumentua, eta ordezkariaren egiaztapena, dokumentu bidez. Egiaztapena zuzenbidean bidezkoa den edozein bide erabiliz egin daiteke (notario-ahalordez, eskritura bidez...). Ordezkapena Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldan erregistratuta egonez gero, ez da dokumentazioa aurkeztu beharko.

PROGRAMAREN GARAPENA

1. PARTE-HARTZAILEAK AUKERATZEA.
2. FORMAKUNTZA.
 - a. Konpetentzia espezifikoak; Planoen Interpretazioa eta kalibrazioa (60 ordu).
 - b. Konpetentzia espezifikoak; Txirbil-harroketa bidezko mekanizazioan (MF0091) (210 ordu).
 - c. Konpetentzia espezifikoak; Eskorga jasotzaileak gidatzea (30 ordu).
 - c. Garapen pertsonaleko konpetentziak (16 ordu).
3. PRAKTIKAK ENPRESAN (gutxienez 60 ordu).
4. LANERATZE-PROZESUAN LAGUNTZA.